

ASTIGARRAGAKO EMAKUMEON ETXEA HERRI BARATZEEN PROIEKTUA

Atariko

Dokumentu honetan Astigarragako Emakumeon Etxearen HERRI BARATZEEN PROIEKTUA dago zehaztuta. Horretarako, lehenik, elkartearen xedea jasoko dugu eta ondoren proiektuaren zehaztapenak, hala nola helburuak, lan-ildoak, norekin eta norentzat, funtzioak eta ekintzak.

Herri baratzeak

Baratzeak espazio irekiak dira, funtzio asko bete ditzaketenak, besteak beste:

- Autokontsumoaren ekoizpen-funtzioa
- Ingurumen- eta hirigintza-funtzioa
- Funtzio soziala eta kohesioa
- Funtzio osasungarria:
- Funtzio kulturala
- Funtzio estetikoa

Hortik abiatuta, Astigarragako Udalak herri baratzeen programari helburu hauek jarri dizkio:

1. Pertsonaren garapen integralerako topagunea izatea (balioen transmisioa). Bizimodu osasuntsua izateko oinarriak eskaintzea. Naturari dagokionez, pertsona batzuk beste batzuetatik ikasteko eta irakasteko eta desagertutako ikaskuntzak berreskuratzeko aukera eskaintzea.
2. Aisia aktiboa sustatzea.
3. Astigarragako herritar guztiei jardueren eskaintza zabaltzea.
4. Lehen sektorea oro har eta nekazaritza ekologikoa bereziki sustatzea.

Bistan denez, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan, funtzio horiek testuinguru ezin egokiagoak dira Emakumeon Etxearen helburuak erdiesteko.

Astigarragako Emakumeon Etxea elkartearen xedea

Astigarragako Emakumeon Etxea elkartearen xedea, besteak beste, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzea eta emakumeon ahalduntzea bultzatzea da, lan-ildo hauek jorratuz:

- Emakumeen parte-hartzea eta elkartegintza sustatzea, bizitzako arlo guztietan, norbanako jabetuntzatik kolektibora.
- Eraldaketa soziala eta feminista lortzeko jarduera estrategikoak bultzatzea.
- Etorkizunean emakume talde eta elkarte anitzak sortuko balira, elkarren arteko elkarlana sustatzea.
- Emakumeen bizi-baldintzak ez ezik, gizartean duten presentzia hobetzearen alde ere lan egitea.
- Berdintasunaren inguruko prestakuntza, sentsibilizazioa eta informazioa sustatzea.
- Berdintasunaren alorreko ikerkuntza, berrikuntza eta ikuspuntu berriak sortzearen alde egitea.
- Udal berdintasun politikan eragina izatea.

Herri baratzeak: helburuak

Herri-baratzeen proiektuak helburu hauek ditu, elkartearen xedeekin eta, oro har, Udalaren herri-baratzeen proiektuarekin bat datozenak:

- Topaketa, entretenimendua, erlaxazioa, gizarteratzea eta lurrarekiko harremana bultzatzea.
- Emakumeen artean proiektu komun bat lantzea.
- Ahalduntzea, elikagaiak landuz.
- Elikadura-subiranotasuna.
- Laborantza ekologikoa sustatzea eta ingurumen-inpaktua murriztea.
- Emakumeek lurra zaintzeko antzinako praktikekin konektatzea.
- Autohornikuntzaren balioa sustatzea.

Herri baratzeak: lan-ildoak

Helburu horiek lortzeko hiru lan-ildo hauek finkatu dira:

1. Autozainketa: Ukendu eta xaboi tailerrerako sendabelarrak.

2. Tailerra: antzinako ezagutza zabaltzea.
3. Ahalduntzea. Laborea: barazkiak eta tuberkuluak. Autonomia autohornikuntzan. Egoera zaugarrian dauden emakumeentzat, zehazki. Uztaren banaketa, ordutegiak eta onurak antolatzea.

Proiektuaren garapenaren arabera, ildo batek edo besteak zeresan handiagoa izan dezake.

Herri baratzeak: norekin eta norentzat

Proiektua emakumeekin egingo dugu eta emakumeentzat: Astigarragako emakumeak, Etxeko bazkideak eta edozein zaugarritasun faktoreren ondorioz kalteberatasun-egoeran dauden emakumeak lehenetsiz.

Herri baratzeak: funtzioak

Bi funtzio edo parte-hartze mota bereizten ditugu proiektuan:

- Baratzaren babesleak: koordinazioa, diseinua eta antolamendua. Babesleak proiektuaren diseinu, antolamendu eta koordinazioaz arduratuko dira, proiektu honetan zehaztutakoetatik abiatuta. Halaber, beren eginkizuna izango da Emakumeon Etxeko Zuzendaritza Batzordeari proiektuaren inguruko xehetasunak eta informazioa azaldu eta egin beharreko egokitzapenak aurkeztea. Pertsona horien eginbeharra izango da, baita ere, partehartzaileek herri-baratzeen eremuko arauak (erabilpen egokia, ordutegiak, tresnen eta azpiegituren erabilpena...), betetzen dituztela gainbegiratu eta ziurtatzea.
- Baratzaren laguntzaileak edo sostengatzaileak: herri baratzeen proiektuaren barruan antolatzen diren ekintza edo unean uneko lanetan parte hartuko duten pertsonak dira.

Herri baratzeak: ekintzak

Gisa honetako ekintzak aurreikusi ditugu:

1. Ekoizpen jarraitua.
2. Jarduera puntualak, etorkizuneko beharraren arabera.
3. Beste erakunde edo kolektibo batzuekiko truke-aktibitatea.
4. Loreak eta aromatikoak landatzea.

5. Ekoizpena parte hartzen duen taldeak kudeatuko du momentuko beharretara egokituz.

Ekintza horietan aldaketak eta egokitzapenak egin ahal izango ditu Emakumeon Etxeak, betiere proiektuaren helburuak betez.

Herri baratzeak: arauak eta Udalarekiko harremanak

Emakumeon Etxearen proiektu honek bere egiten ditu Udalaren herri baratzeen proiektuan finkatutako arauak eta baratzeak eta bertako azpiegitura eta baliabideak erabiltzeko prozedura eta moduak, besteak beste, lurraren aprobetxamendua, jardun ekologikoa, uraren erabilera, hondakinen tratamendua...

Emakumeon Etxeak proiektu honen arduraduna izendatuko du. Pertsona hori izango da herri baratzeekin lotutako gaiak udalarekin landu eta bideratzeko ardura izango duen pertsona.